

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



POLICARPO ELOSEGI ANSOLA

POLICARPO ELOSEGIK BASERRIKO FAMILIARI EMANDAKO BEGIRADA

Argazki xelebre eta atsegin hau Tolosako Artxiapiaga baserrian egin zen 1898ko abuztuaren 28an eta base-
rriko familia irudikatzen duen erreportaje txiki baten parte da. Irudian, argazkilariak eszena gidatu du, eta
pertsonaia guztiak oso modu zehatzean jarri ditu nahi zuen efektua lortzeko. Aita malabarismoak egiten
ari da mahai gainean hankaz gora jarrita, hiru seme-alabak begira dituela. Semeetako bat soinu txikia jo-
tzen ari da. Egilea Policarpo Elosegi Ansola da, jatorriz Tolosakoa zen argazkilaritza zalea. Policarpo Boinas
Elosegui fabrikako eta Eusko Ikaskuntzako zuzendaritzetako kide izan zen. Ski Club Tolosanoren sortzailee-
tako bat ere izan zen, 1909an, eta Tolosako zinegotzia, 1913an. Bere argazki artxiboak 1066 irudi ditu.